


Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Verdi
Itziar GilleneaELKAR
200 orrialde
13 euroGiuseppe Verdiren
bizitza eta operak

Itziar Gilleneak idatzi du Giuseppe Verdi musikariaren biografia eta Elkar argitaletxeak kaleratu. Historian, Geografian, Musikaren Historia eta Zientzietan lizentziatua da Gillenea eta lanbidez Zarauzko Institutuko irakaslea da. Opera zale amorratua da gainera, eta Verdiren bizitzako gorabeheri bezainbesteko garrantzia eman die konposatutako musika lanei. Ezin bestela jokatu, nolana ere, Verdiren obraren harrera Italiak bizi izan zuen egoera politikoari loturik egon ei baitzen ia hasieratik. Hogeita bederatzita urterekin lortu zuen bere lehen arrakasta handia, 1842an estreinatu zen

Nabucco operarekin, eta handik aurrera gero eta ospe handiagoa izan zuen. Hogeita zazpi opera idatzi zituen, azkena laugetan urterekin estreinatu zuen *Falstaff*. |

Matxitxakon
1937an gertatua

Gure Erroak argitaletxeak plazaratutako komikia da *Berunezko itsasoa. Matxitxakoko guda*. 1937ko martxoaren 5ean frankisten itsas armadako Canarias ontzi nagusiak eta Euzkadiko Guduontziko lau *boniek*, egun horretan izan zuten borrokaldi desorekatua azaltzen du. Baionatik Bilbora zihoan Galdames merkatalontzia babestu asmoz aritu ziren Gipuzkoa, Nabarra, Bizkaya eta Donostia izeneko *bonak* ahal zuten guztia egin arren, Canariasen indar nagusitasuna erabatekoa izan zen, eta huraxe irten zen garaile. Azkenean, 40 hildako, Nabarra hondoratua, Gipuzkoa matxura larriekin eta Galdames ontzia harrapatua gertatu ziren. Eta frankistek preso hartu zituzten bizirik suertatutako marinela, Galdames ontziko tripulazioa eta bidaiariekin batera. |

Berunezko
itsasoa.
Matxitxakoko
guda

Begoña-Sendra

GURE ERROAK
40 orrialde
23,50 euroDiccionario histórico del
Carlismo

Josep Carles Clemente

PAMIELA
592 orrialde
29 euroKarlismoaren historiak duen
hutsunari eginiko ekarpena

Josep Carles Clemente historialariak Historia, Kazetaritza eta Soziologiaren inguruko 70 liburu argitaratuak ditu, eta horien artean asko dira karlismoa aztertzen dutenak: besteak beste, *Montejurra 76: encrucijada política* (1976), *Historia del Carlismo Contemporáneo* (1977), *Las Guerras Carlistas* (1982), *Historia General del Carlismo* (1992), edota *El Carlismo contra Franco* (2003). Orain, Pamiela argitaletxearen bidez *Diccionario histórico del Carlismo* izenburuko lana kaleratu du, egilearen iritziz Karlismoaren historiak daukan hutsune zientifikoa betetzen laguntzera datorren ekarpena. XIX. mendean Nafarroan eta Euskal Herriko beste lurraldeetan, Katalunian eta Levanten oihartzun handia izan zuen mugimenduari lotutako hiztegiak 4.000 bat sarrera ditu. |

Kartoizko etxeak
dituen ipuina

Etxeko txikienei begira eginiko ipuina da *Tomaxitaren etxe koxkorra*. Juan Kruz Igerabideri zor zaio euskarazko egokitzapena. Nor dugun Tomaxita? Bada, bera eta katua bakarrik eta gozo bizi ziren etxeko atea lagun mordo bati ireki, ziztu batean bakoitzarentzat gela bat egin, eta bertan bizitzen uzteagatik, azkenean beste etxe batera bizitzera joan beharrean izan zen andrea. Gaitzerdi, zeharo trebea zen Tomaxita etxeak egiteko kontuan, eta hurrengo ere aurrekoa bezain eroso eta gozoa atera zitzaion. Nolanahi ere, kartoi lodiz osatutako *Tomaxitaren etxe koxkorra* liburuxkak, kontakizunak eskaintzen duen liluraz gain, ezusteko ugari gordetzen ditu eskuetan hartzen duen irakurlearentzat: paperez altxatuko *benetako* etxeak, eta hirurogeita hamar ate eta leiho baino gehiagok, atzean ezkututzen dituzten sorpresatxoak. |

Tomaxitaren
etxe koxkorraPhyllis Root,
Delphine DurandIBAIZABAL
12 orrialde
14,50 euro



Ipuinak ez
sexistak izateko
gida.

Gomendioak
eta adibideak

[Batzuen artean](#)

URTIXINTXA ESKOLA

120 orrialde

Sexu berdintasunera iristeko bideak

Urtixintxa Eskolak plazaratu duen *Ipuinak ez sexistak izateko gida* izenburuko liburuak hurrei kontatzen edo irakurrarazten zaizkien ipuinek izan dezaketen arlo sexista gainditzea du helburu. Eta horretarako beharrezkoak diren gomendioak ematen dizkigu. Irakurketak haurren bilakaeran duen funtzioa azterteaz batera, euskal literaturan aurki daitezkeen ipuin ez sexiten adibide ugari ematen ditu. Neskei eta mutilei beren sexuagatik zer-bait dagokiela aldarrikatzen ez duten ipuinak dira Urtixintxa Eskolakok aukeratutakoak.

Errealismoa, fantasia, umorea, barne arazoak, familia eredu berriak, ekologia, inmigrazioa-emigrazioa, kulturartekotasuna eta antiautoritarismoa lantzen dituzte. |

Unai Elorriagaren narratiba gogoetagai

Eusko Ikaskuntzak kaleratzen duen Hizkuntza eta Literatura Koadernoak, *Oihenart* aldizkariak alegia, 22. zenbakian Unai Elorriaga idazlearen lan narratiboa du hizpide. *SPrako tranbia* nobelaren azterketa kritikoa, 2002ko Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi zuenean Euskal Herriko eta Espainiako hedabideetan berriki eduki zuen isla, Unai Elorriagaren estiloan adituek jarritako arreta, eta *SPrako tranbia* nobelari egileak egin zion gaztelaniazko itzulpenaren azterketa biltzen ditu monografikoak. |

Oihenart

[Batzuen artean](#)

EUSKO IKASKUNTZA

134 orrialde / 15 euro



PADDY REKALDE

«Istoria laburra baina zuzena da, kaleko giroa bezain sargaritsua»

Zure nobela beltz honen korapiloa osatzen duten nondik norakoak azaltzerik bai?

Joxan Uriarte, boxeolari ohia, Bilbora bueltatzen da aspaldiko kontu zahar bat argitzera. Argitzeak ekarriko du mendekua. Ezinbestean. Arazo politikoek Bilbotik ihes egin beharra eragin zioten, Galiziarra, boxearen bestelako altzo batera... Horretan emango ditu urteak, negozio beltzen bueltan zein Bibi beltzaranaren laztan epeletan. Hala ere, aspaldiko min batek ez dio bakerik ematen, eta, beraz, itzuli eta hura argitzea ezinbestekoa izango zaio.

Zerk egiten du *Ragga-ragga dator gaua* berezi?

Istoria zuzena da, *Do The Right Thing* edota *La Haine* izenburuko filmek irauten dutena bezain laburra... eta esango nuke haixek bezain intentsua eta indartsua ere badela. Saiakera nobeletatik urrunduta, nahita, pasioz jantzita agertu nahi du: amodio ezinak, ausardiak eta koldarkeriak, giro sargaritsua, musika etengabe, Bombita boxeolari frakasatuaren errealismo magikoa, Urbano Lugris margolariaren itsaso debekatu baina asmatua, boxearen bestelako kolpeak, Euskal Herri honek jasan behar dituen jauntxokeriak, lagun minaren heriotza...

Eta guztia borobiltzeko osagai gisa, zer du?

Istoria laburra baina zuzena da, *in crescendo* doana, kaleko giroa bezain sargaritsua, Txirene irrati libreak jartzen duen *ragga* musika bezain beroa... Eta musikarekin batera, irrati horrek egun berean ematen dituen bi berri lazgarriak: etorkin haurdun bat itoa itsasadarrean, alde batetik; eta bestetik, preso politiko bat ziegan hilda agertzea... Amodioa eta gorrotoa Joxanen bihotzean. Ukabiletan.



egileari galdezka

Paddy Rekaldere plazaratutako lehen nobela beltza

Ipuinak, poesia eta Irlandan kokatutako *Rebel mayo Colorado* eleberria ezagutzen genizkion

Paddy Rekaldere, *Ragga-ragga dator gaua* nobela beltza eskaini zigunera-ko. Mendeku gosez dabilen boxeolari bat, Bilboko alde zaharra, eta hirian azken orduetan gertaturiko berriak eta kantu behinenak etengabe ematen diharduen Txirene irrati librea dituen kontakizunak protagonista nagusi. Era berean, narrazioaren hedaduran boxeolariaren gaztaroko adiskideek, biziki gorroto duen jauntxo berriak eta honen maltzurkeriaren ondorioz ezagutu dituen Galiziako zenbait pertsona eta bazterrek ere garrantzia handia dute. Lagun min baten bortxazko heriotzak bultzatu zuen Joxan Uriarte Bilbotik Coruña-ra ihes egitera, eta han ahal zuen moduan bizimodua bilatzera. Boxeo borroka batzuren



Ragga-ragga
dator gaua

[Paddy Rekaldere](#)

SUSA

144 orrialde

13 euro

ondoren, nagusi berri baten eskaerari baietza eman eta haren bizkartzain gisa hasi zen lanean. Aitaren hiletak itzularaziko du Bilbora, iraganean utzitako guztiari aurre egitera. Hiletaren hurrengo egunean aurkituko du irakurleak boxeolaria, ostiral sargori batean, azoka ondoko erriberako barandan bermatua eta itsasadarrari begira, barruko gorrotoak erretzen duen bitartean. ■